



# IKASTURTE HASIERAKO ARGIBIDEAK

## HASIERA EGUNAK

*Iragarri bezala, irailaren 8an eskola jarduera abiatuko dugu Haur eta Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailatan.*

*DBHko 3. mailatik aurrerako ikasleak berriz, irailaren 15ean hasiko dira.*

## IKASGELAKAKO FUNTZIONAMENDUA

*Haur eta Lehen Hezkuntzan gelakako funtzionamendua bideratuko dugu, hau da, gela ezberdinetako ikasleak nahastea ekidingo dugu.*

*Sarrera eta irteeratan, zein Ikastolaren egunerokoan COVID19 dela eta kontuan izan beharreko jarraibideak **ostiralean, hilak 4, helaraziko ditugu.***

*Funtzionamendu horren ondorioz, ez da **Eskolaz Kanpoko Ekintzarik** bideratuko eta **zerbitzu asistentzia-***

*laren bideragarritasuna aztertzen ari gara.*

## GURASO BILERAK

*Ikasturte hasierako bilerak on-line bideratuko ditugu. Irailaren 7an talde bakoitzaren ordutegi eta gainerako argibideak luzatzeko bilera birtuala burutuko da. Bilera bakoitzaren lotura ostiralean, hilak 4, helaraziko dugu.*

## JANTOKIA

*Jantoki zerbitzua erabiltzeko izenematea irailaren 8ra arte izango dugu zabalik ondorengo formularioan:*

**izena eman** 

*Laguntzaile txandari dagokionez, COVID19ari aurre egiteko protokoloek auzolanean parte hartuko duten pertsonen elikagaien manipulataile karneta beharko dutela ezarri berri dute. On-line eskuratzea dago ondorengo web gunean: [hazia.net](http://hazia.net).*

## BORONDATEZKO AUZOLANA

*Ikastolako espazio eta sarrerak ikasturte hasierarako prestatu beharra dugu. Hori dela eta, familien laguntza ezinbestekoa izango dugu hainbat ego-kitzapen gauzatzeko.*

*Hortaz, borondatezko auzolana burutuko dugu larunbatean, irailaren 5ean, 09:00etarik aurrera.*

*Ahal dela ondorengo formularioan izena eman:*

**izena eman** 